

BIDASOA

## Euskal Herrira etorri eta euskara ikasi dutenei omenaldia egingo die Korrikak

Hizkuntza sustatzeko helburua duen lasterketa hilaren 29an helduko da Irunera. Goizeko seietan iritsiko dira lasterkariak Usategietako bidegurutzera

19.03.09 - MAIDER IZETA

IRUN. DV. Alfabetatze Euskaldun-tze Koordinakundeak (AEK) Korrika lasterketaren XVI. edizioa martxan jarri du. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea xede duen eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzen duen lasterketa bailaratik igaroko da aurten ere.

Euskararen aldeko lasterketa datorren igandean, hilak 29, igaroko da Irun eta Hondarribiatik. Goizean goiz iritsiko dira lasterkariak hirira. Ibilbidea antolatu dutenen esanetan, goizeko seietan Usategietako bidegurutzera helduko dira korrikalariak. Migel Tabernak hartuko du lekukoa eta Landetxako auzoa zeharkatu ondoren, Letxunborrorantz abiatuko da Korrika ondoren Hondarribira joateko. Zazpi eta erdietan itzuliko da lasterketa Irunera eta hirigunea zeharkatu eta gero, Hendaiara iritsiko da.



Eskualdeko koordinatzaile den Mattin Zuarzabalberek zioenez, aurtengo Korrikaren edizioan «bi gauza azpimarratu nahi ditut. Alde batetik, jendeak Korrikan parte hartu nahi badu, Irun edo Hendaiako euskateltzara dei dezake». Bestetik, ordu aldaketari buruz aritu zen Zuarzabalbere. Izan ere, udaberriko egutegira egokitzeko martxoaren 28tik 29ra ordularia ordubete aurreratuko da. «Kontutan izan behar dugu aurtengo Korrikak berezitasun hau duela. Espero baino lehenago hasiko gara korrika egiten», zioen bailarako koordinatzaileak.

Lasterketa Tuteran hasiko da martxoaren 26an eta Gasteizen amaituko da apirilaren 5ean. Aurtengo edizioaren leloa *Ongi etorri* da. «Euskal Herrira datozeinei eta euskara ikasirik bere aportazioa eman duten etorkinak omendu nahi ditugu alde batetik. Bestalde, Euskal Herritik kanpora joan zirenei eta bueltatzerakoan euskara mantendu dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu», adierazi zuen Mattin Zuarzabalberek.

Aurreko edizioetan bezalaxe, Korrika dela eta aurten ere festa izango da Irunen. Goizean goiz gosaria izango da Udarribia plazan. Eta ondoren, 11:00etan Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia eskainiko dute Hendaiako Beltzenia pilotalekuan.

Gainera datorren astean *Bidaia intimoak* laburmetraia ikusteko aukera izango dute bailarako biztanleek EKT, Muara, Plaiiaundi BHI eta beste zenbait aretotan. Korrika txikia martxoaren 27an izango da, 10:30ean.